

# Armanak Uskara

edo

# Z

## iberouko Egunaria

1907 gerren ourtheke

Jinkoa eta Herria !  
Zuhurtarazuna eta lana !  
Eta bizia bethi Uskalduna !  
Iao ! Iao !  
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen                      Atharratzen.  
DETCHERRY enian                      MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : SOS BAT



### BIGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
 Ⓢ " Argizagi azken laordena.  
 ⊙ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.  
 ⊕ " Argizagi lehen laordena.

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 27<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthaila* 13<sup>an</sup>;  
 — BAZKO, *martchoko* 31<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 6<sup>an</sup>,  
 7<sup>an</sup> eta 8<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 9<sup>an</sup>; — PHENTE-  
 KOSTE, *maiatzeko* 19<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *maiatzeko*, 30<sup>an</sup>; —  
 ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentu*, 1<sup>n</sup>.

### LAOR THENPORAK :

Baranthaila 20 <sup>n</sup> , 22 <sup>n</sup> eta 23 <sup>n</sup> .	}	Buruilako 18 <sup>n</sup> , 20 <sup>n</sup> eta 21 <sup>n</sup> .
Maiatzeko 22 <sup>n</sup> , 24 <sup>n</sup> eta 25 <sup>n</sup> .		Abentuko 18 <sup>n</sup> , 20 <sup>n</sup> eta 21 <sup>n</sup> .


### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhunte osoa, *ourtharila* 13<sup>an</sup>. Ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa *ourtharila* 28-9<sup>n</sup>; ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Ekhi ulhunte, *uztarila* 10<sup>an</sup>, ikhousiko eztena. Ber hilabeteko 24<sup>an</sup>, argizagi ulhunte phartezkoa, ikhousiko dena goizanko laor oren eta erditan.





## IRAKOURZALER



Aorthenko armanaka laorgerren arraldiko azkena da. Usatu besala eginik da bi kartillaz algarreki joserik; lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian urratzekoa dateke. Bigerrena, mintzodena istoriaz, aholku hounez laborarientako; aitzineko laor ourthetako armanakak begiratudutukienek haieki josiko die libritto balioubaten egiteko. Haientako dugu hountarik landan emaiten azken arraldi horren edirengia; josten ahal dateke kartillekin.

Uskara maite diener atse eginen dere jakitia orai berri mendiaz bestaldeko Uskaldun, jaon J. de Urquijo denak, moulda erazi dutiala, Joanes Etcheberri, hamazortzigerren mente batsarrian bizi zen medeziaren uskal izkiribiak. Bada segur libru ederra eta houna: ezi Etcheberri uzgara bastartaren etsaia zen. Hao dela libriaren titria:

### OBRAS VASCONGADAS

DEL DOCTOR LABORTANO

JOANNES d'ETCHEBERRI

(1712)


Con una Introducción y notas

Por

JULIO DE URQUIJO

PARIS, 1907 — 25 libera.

Erran dezagun ere, Jaon R. de Azkuek adalatu uskal Hitztegia aorthen mouldaturik izandela.





AZKEN BOST OURTHETAKO ARMAÑAKEN  
EDIRENGIA

Ezkontze khiristia.....	1
Tobiasen istoria.....	7
Bizitze zuhurra.....	9
Oustegabetarik bedezi.....	12
Erreboluzionia.....	25
Zer dabilan hor heben.....	32
Katichima uskaraz.....	37
Aita Saintia eta gobernia.....	49
Khountu zahar : Ostatu chouria.....	52
Laborarier aholku.....	55
Bankarrotari buruz.....	73
Frantzian eta Beljikan.....	76
Uskara bazterretan.....	77
Sei chankhatako legebat.....	79
1906 ourthia.....	97
Adio erreljionia.....	102
Botz emaitia koutzentziako ezinbide bat da....	108

Laborantchaz :

Uzten berriak 1902 <sup>ik</sup> , 1906 <sup>no</sup> 16, 39, 61, 84,	
Lursagarren uzta noula emenda.....	19
Laborarien indar handia, oro bat jartez..	42
Fruten luzaz irañeraztiz.....	44
Lursagarren eritarzun berribat.....	64
Gorotzurphoko ichouriaaren balia.....	65
Naboa.....	66
Baratzen aitzurtzia larrazkenian.....	68
Laborarien arteko asurantzak.....	86
Arthoaren jorratzia.....	89
Istoria eta erasi..	21, 46, 70, 93, 118





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓔ a. l., 7<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.
- Ⓕ a. b., 13<sup>n</sup>, goizanko, 6<sup>or</sup> eta 6<sup>m</sup>.
- Ⓖ l. l., 20<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 51<sup>m</sup>.
- Ⓗ a. o., 29<sup>n</sup>, arrastiriko 0<sup>r</sup> eta 54<sup>m</sup>.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- Ⓔ a. l., 5<sup>n</sup>, gaiko oren bakh<sup>n</sup>.
- Ⓕ a. b., 12<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.
- Ⓖ l. l., 19<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 44<sup>m</sup>.
- Ⓗ a. o., 27<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 32<sup>m</sup>.



- |                   |                        |
|-------------------|------------------------|
| 1 Asteharte.      | ZIRKONZISION.          |
| 2 Astizken.       | s. Makaire.            |
| 3 Ostegun.        | sa Jenevieva.          |
| 4 Ostirale.       | sa Fausta.             |
| 5 Neskanegun.     | sa Amelia.             |
| 6 <b>Igante.</b>  | APHARIZIO.             |
| 7 Astelehen.      | sa Melania.            |
| 8 Asteharte.      | s. Luzien.             |
| 9 Astizken.       | s. Julien.             |
| 10 Ostegun.       | s. Marzien.            |
| 11 Ostirale.      | s. Teodoso.            |
| 12 Neskanegun.    | sa Tazienna.           |
| 13 <b>Igante.</b> | s. Leonze.             |
| 14 Astelehen.     | sa Hilaria.            |
| 15 Asteharte.     | s. Phaole, erm.        |
| 16 Astizken.      | s. Marzel.             |
| 17 Ostegun.       | s. Antoni.             |
| 18 Ostirale.      | J. Phetir. Err. Jartia |
| 19 Neskanegun.    | s. Kanut.              |
| 20 <b>Igante.</b> | s. Fabien eta Sebast.  |
| 21 Astelehen.     | sa Añes.               |
| 22 Asteharte.     | s. Bizente.            |
| 23 Astizken.      | A. B. Ezkountz         |
| 24 Ostegun.       | s. Timote.             |
| 25 Ostirale.      | J. Phaoler kon.        |
| 26 Neskanegun.    | s. Polikarpe.          |
| 27 <b>Igante.</b> | Setuajesimo.           |
| 28 Astelehen.     | s. Amadeo              |
| 29 Asteharte.     | s. Franz. Sal.         |
| 30 Astizken.      | sa Martina.            |
| 31 Ostegun.       | s. Petiri Nol.         |

- |                    |                            |
|--------------------|----------------------------|
| 1 Ostirale.        | s. Inazio.                 |
| 2 Neskanegun.      | KHANDERALLU                |
| 3 <b>Igante.</b>   | s. Blasi (Setsaj.)         |
| 4 Astelehen.       | sa Jana, Val.              |
| 5 Asteharte.       | sa Agata.                  |
| 6 Astizken.        | s. Aman.                   |
| 7 Ostegun.         | s. Romual.                 |
| 8 Ostirale.        | s. Johane Mat.             |
| 9 Neskanegun.      | sa Apolina.                |
| 10 <b>Igante.</b>  | Kinkagesimo.               |
| 11 Astelehen.      | A B. Lourdakoa             |
| 12 Asteharte.      | s. Tita.                   |
| 13 Astizken.       | HAOSTE.                    |
| 14 Ostegun.        | s. Valenti.                |
| 15 Ostirale.       | s. Fausti.                 |
| 16 Neskanegun.     | sa Julienna                |
| 17 <b>Igante.</b>  | GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .  |
| 18 Astelehen.      | s. Flavien.                |
| 19 Asteharte.      | s. Konrad.                 |
| 20 Ast. IV Th. B.  | s. Eucher.                 |
| 21 Ostegun.        | s. Pepeñ.                  |
| 22 Ost. IV Th. B.  | J. Phetir. Ant. Jart.      |
| 23 Nesk. IV Th. B. | s. Petiri Dam.             |
| 24 <b>Igante.</b>  | Gorozumako, 2 <sup>a</sup> |
| 25 Astelehen.      | J. MATHIAS, ap.            |
| 26 Asteharte.      | s. Zezaira.                |
| 27 Astizken.       | sa Onorina.                |
| 28 Ostegun.        | s. Rufi.                   |



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☾ a. l., 6<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 51<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 13<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 21<sup>n</sup>, arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 19<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 29<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 53<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☾ a. l., 5<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 29<sup>m</sup>.
- ☉ a. b., 12<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 15<sup>m</sup>.
- ☽ l. l., 20<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 17<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 27<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.



- 1 Ostirale. s. LEON, *Baion.*
- 2 Neskanegun. s. Zinplize.
- 3 **Igante.** *Gorozumako, 3<sup>a</sup>*
- 4 Astelehen. s. Kasimir.
- 5 Asteharte. s. Luperkule.
- 6 Ast. s<sup>a</sup> Koleta.
- 7 Ostegun. s. Tomas, Ak.
- 8 Ost. s. Johane Jink.
- 9 Nesk. s<sup>a</sup> Frantzesa.
- 10 **Igante.** *Gorozumako, 4<sup>a</sup>*
- 11 Astelehen. s. Konstanti.
- 12 Asteharte. s. Greg. hand.
- 13 Astizken. s<sup>a</sup> Ufrasia.
- 14 Ostegun. s<sup>a</sup> Matilda.
- 15 Ostirale. s. Zakaria.
- 16 Neskanegun. s. Ziriaka.
- 17 **Igante.** PASIONIA.
- 18 Astelehen. *J. Gabriel. ark.*
- 19 Asteharte. s. JUSEF.
- 20 Astizken. s. Zirilo.
- 21 Ostegun. s. Bedit.
- 22 Ostirale. s<sup>a</sup> Riktruda.
- 23 Neskanegun. s<sup>a</sup> Pelajia.
- 24 **Igante.** ERRAMU.
- 25 Astelehen. A. D. M. ANONTZ.
- 26 Asteharte. s. Braulio.
- 27 Astizken. s. Johane Dam.
- 28 Ostegun. *Osteg. Saintu.*
- 29 Ostirale. *Ostir. Saintu.*
- 30 Neskanegun. *Neskan. Saintu.*
- 31 **Igante.** BAZKO.

- 1 Astelchen. s. Hugues.
- 2 Asteharte. s. Frantzes P.
- 3 Astizken. s<sup>a</sup> Irena.
- 4 Ostegun. s. Isidro, Aphk.
- 5 Ostirale. s. Bizento Ferr.
- 6 Neskanegun. s. Sisto.
- 7 **Igante.** 1. s. *Herman.*
- 8 Astelehen. s., Albert.
- 9 Asteharte. s. Akazio.
- 10 Astizken. s. Makari.
- 11 Ostegun. s. Leon hand.
- 12 Ostirale. s. Jules.
- 13 Neskanegun. s. Ermenejilda
- 14 **Igante.** 2. s. *Justi.*
- 15 Astelehen. s<sup>a</sup> Anasztasia.
- 16 Asteharte. s<sup>a</sup> *Grazi.*
- 17 Astizken. s. Anizet
- 18 Ostegun. s. Elutero.
- 19 Ostirale. s. Leon IX.
- 20 Neskanegun. s. Teotimo.
- 21 **Igante.** 3. s. Anzelmo.
- 22 Astelehen. s. Suter eta Kaio.
- 23 Asteharte. s. Jorji.
- 24 Astizken. s. Zerazi.
- 25 Ostegun. J. MARK, Eb.
- 26 Ostirale. s. Klet & Marz.
- 27 Neskanegun. s. Zerazio.
- 28 **Igante.** 4. J. *Phaole K.*
- 29 Astelehen. s. Petiri, m.
- 30 Asteharte. s<sup>a</sup> Katalina.



## 1906 OURTHIA



**O**URTHE markatia, gisa oroz markatia izan da ourthe hori Frantziarentako. Politikaz aiphu, errelijonez aiphu, balio duke aiphaturik izatia, geroan, eta segur da goure istorian izan diren ourthe aiphatiennen herrenkian ezaririk datekiala.

*Politikaz aiphu*, izan dutugu bozkatze elibat, salbamentiarean lekhutan ondoaje gaistoena ekharri beiteizkie.

Zenaturretan hirour phartetarik bat berritzekoa zen ourtharilan. Zenaturgei hounak saihetsialat utzirik, herrietako delegatiek haitatu dutie framazouen aldekoetarik, eta bozkatze horren lehen ondoajia izan da *Loubet* presidentaren ordari, hora bezaiñ gaisto edo gaistogo den, *M. Fallières* — en izentatzia.

Goure nahasteriak ikhousirik, Alamaniako emperadoriak eman zeikun haitia, edo gerlaren, edo goure intresen eta ouhouriarean damutan zen kontratu baten egitia. Kontratu hora eginik eta sinaturik izan da *Algésiras* deithu Españako hirian; eta heben harat, Maroc delako Afrika gañeko erresouman, Alamaniak badutuke zuzen elibat, gouri khenturik, guk ordaritako deusere ukhen gabe.

Deputatiën bozkak izan dira maiatzian. Jinko matia! Zer tzarkeria ourdekeria greiithgarriak! Gizonek beren kontzentziak, eta holaz Frantziaren eta erreljioniaren intresak, saldu dutie, bai saldu, beren barrioko esku-orga bat gorotz saldu lukien beno merkiago. Frantziako egitekoak hañ itchouski joaiten

zirela ikhousten eta halere egiteko hoi en gaizki joanera zler photeria arra-emaite n ! horra herra mentu bat, utsukeria bat, gourre arra-haurrak ahalkera ziko tiana, hala noula gu ahalketzen beikira, Erreboluzione demboran agitu ziren itchouskeriez. Ezi, ordian ere, botz emailek lege egilia k gaizki haitatzen zutielakotz, Frantzia guzia odolstaturik izan zen, eta, dembora hastialgarri haiez geroztik, etziren agitu Frantziako egitekoak oraiko lege-egilem uduriko esku tzarretan.

Ezta estonatu behar, arren, deputatu berriak, juntatu bezaiñ sarri, hasi badira hitzartzen lege abio batez, aspalditik zozialisten gogoan dena, eta, haren arabera, Frantziako hountarzunak oro, ala lur, ala etche, ala kabale. ala diharu, ala bestiak, oro, boti ezaririk beitateke eta Errepublika eginik beitate Frantziako jente ororen amañou !

Ezta estonatu behar, holako gizonak Frantziako egitekoen buru direlarik, Judiouek, Framazouek, Zozialistek, Dreyfusi, zazpi gerlako ministro errepublikeñez eta bi tribunaletako juzez traidoretako ezaguturik eta kondenaturik izan denari, saldu zutialakotz Alamaniako emperadoriari goure armadako izkiribu segretu elibat, ardietsi balinbadere bere kondenazionetik chahaturik izatia, eta bere kondenazionien aitzinetik zian gradoa beno gorago batetara igaraitia.

*Errelijioniaz aiphu* : Ourthe handienetarik bat izan date 1906<sup>ekoa</sup>. Errelijioniari eginik den gerlari buruz, behinere beno beharrago gunian, azkar izatekotz, katolikoek ororek bat egitia goure aphezakupiekin eta aita saintiarekin ; ezi ezta indarrik armada batek, ezpalinbadutu jeneral houn bat eta kapitañ zuhur eta kapabliak, jeneralari obedituko dienak. Eta houna noun Aita Saintiak emaiten dutian Frantziari haituzko aphezukupu berri elibat, beren saintutarzunaz, jakitatiaz, thalentu eta dohañ baliousez, kargu hor-



tara deithurik zirenak. Frantziako populiari bere amorioaren erakousteko, bai ere ezaguterazteko zer dembora seriousetan giren, Aita Saintiak deitzen dutu Erromarat eta han berberak konsekratzen aphezakupugoa altchatu nahi zutian hamalao aphezak.

Ordu baizik etzen Frantzian ukhen genezan aphezakupukentia oso osoa, *Loi de Séparation* delako legiaren aitzinian Errelijioniaren eta kontzentzia katolikoan zuzenen zaphatzera eta saltzera ez uzteko. Lege horren egitian, kridatzian eta burutzera abiatzian, goure gobernamentiak itchouskeria eta injustizia handia egin du. Aita Saintiari, mundian diren berrehun miliou katolikoan aitzindari lehenari, Jinkoaren ordariari, hemeretzu menteren erregegoaren gañen bere gehiengoa sakratia bermaturik dian gizonari, goure deputatu, zenatur, ministro eta president igarankorrek egin dere laido edo afrountu bat, ezpeiteite itchousiagorik egin. Bazen Frantziako populiaren eta Arkhu Saintiaren artian kontratu solanel bat, Aita Saintiak eta Frantziaren aitzindariak, diala ehun bat ourthe sinatia, errelijioniaren egitekoen erreglatzeko: *houra zen Concordata.*

Goure lege-egilek, ministroek eta Presidentak *batere pharterik ere egin gabe Aita Sainiari ez eta Frantziako Aphezkupier, Concordata* urratu die eta haren ordari ezari *Loi de Séparation* deithu legia. Lege hortan, goure gobernamentuko aitzindariak, mouldatu die goure errelijioniarentako bizitze mouda berriko bat, Framazouek gogatia, emeki emeki Frantziako populia paganotu behar ziana. Lege hortan, Eliza eta Frantziako aphezkentia, beren hountartzunez eta gobernamentiak zor deitzen phakamentiez *osoki* gabeturik dira; ez berhala, ez batetan, populiak okherreria ikhous beiliro ordian, eta agian phitz beileite; bena emeki emeki, baratcha baratcha. *Aita Saintiak legia hounhartuz ere, hamar our-*

*theren mukan, legiak khentzen zutian Elizari eta aphezkontiari beren hountarzunak oro.* Aldiz, amorekatik hobeki lephotik soka ezar lekigun katoliko orori, lége hortan ezaririk da, ezpalinbadiegu goure aiten errelijione zaharra Errepublika framazoutiarrak manhatzen deikun mouda berriala mouldatzen, *Associations cultuelles* direlako biltzarrenak herrikal ezariz, Elizaren hountarzunak oro, elizak, elizetako hatiak, aphezkuputegiak, aphezetchiak, seminarioak, kolejioak, diharutan edo lurretan edo etchetan hilek meza saritako eta elizentako egin ordeñiak, horik oro, arround, 1906<sup>eko</sup> abentiaren 11<sup>enetik</sup> hasirik, gobernamentiak beretuko dutiala.

Holako okherreriak eta ouhouñkeriak ez zutian ounhesten ahal Aita Saintiak. Lehenik baranthallaren 11<sup>an</sup>, gero agorrilaren 10<sup>ian</sup>, igorri dutu letera ezinago eder eli-bat lege horren kondenatzeko eta goure abertitzeko katoliko izatekotz behar dugula begiratu, *associations cultuelles* deithu biltzarretan sartzetik. Goure aphezkupiak ere *oro* berritan juntatu dira, Parisen, hitzartzeko zer egin behar den lege hastialgarri horrek egiten deikun zorthiari buruz. Bigerren junta ederki markatu die bi egitatez zouñ amiraturik izan beitira mundu guziko katolikoez, haietarik ageri beita ororek bat eginen diela eta eztela bakhotch bat berheziko Aita Saintiaganik.

Egitate hoietarik lehena izan da lauetan hogeï eta bost aphezkupiek *Pariseko* eliza zaharrenian eta gehienian Jesusen Bihotz sakratiari Frantziaren konsekratzia, ororek batetan irakourriz konsekrazio-nezko aktia, hamar mila Paristar jakile zirelarik, Sakramentu Saintiaren aitzinian.


Bigerrena aldiz, letera baten ororek sinatzia, eta, Frantziako eliza guzietan, ber egunian, setemeren 23<sup>an</sup> irakoureraztia. Letera hartan erraiten die oro hersiki juntaturik direla Eliza katoliko guziaren aitzinda-

riari, eta ekharririk direla zer nahi sakrifizioen egi-  
tera, errelijioniaren zuzener ukho eginen dien beno  
lehen. Oharterazten die Frantziako populiari, *eztela  
lege egile zuzenezkorik, errelijioniaren gañen, Aita  
Saintia baiçik, edo, harekilan batian, Aphezakupiak.*  
Geroztik, eztiela hounhartzen ahal Gobernamenti-  
ak lege egin dezan errelijioneko gaizen gañen, ber-  
berak, errelijioniaren aitzindariekin hitzartu gabe.  
Erakousten die eztela ihour katoliko izaten ahal,  
noun eztian Aita Saintia Eliza egiazkoaren lehen  
gehien ezagutzen, eta, nahi badie nazionen aitzin-  
darien lege ekharri errelijionari doatzen egitekoetan,  
behar diela elhestatu Aita Saintiarekin eta haren  
baia ukhen, halako legek indarrrik ukheitekotz.


Aita Saintiaren eta Aphezakupien sententziak egois-  
ten du, ezeztatzen du, goure deputatu eta zenaturrek  
egin dien legia. Edo, lege hori jaun hoiek behar die  
arrahounki, errelijioniaren zuzenak oso begiraturik  
izateko gisan; edo, legia saihetsialat utzi, batere  
burutu gabe; edo, nahi badie burutu, abentiaren  
11 <sup>enetik</sup> aitzina behar dutie elizak zerratu, gero elizak  
eta haietan diren ountzi sakratiak, oihalak, hatu  
suertiak oro saldu; behar dutie aphezakupiak, aphe-  
zak, aphezgeiak, beren aphezakuputegietarik, aphez-  
hetarik, seminarioetarik kanpo ezari; mundia  
mundu deno meza ukheiteko, hilek lurretan edo  
diharutan egin utzitiak behar dutie ebatsi bardin  
framazouer hen emaiteko.

Horrek erran nahi du 1906 ourthia urhentzen dela-  
rik Frantziako zelia odei beltzez tinki betherik dela  
eta uduripenen oren arabera ourthe berriak tem-  
pesta lehertzen ikhousiko diala.





## ADIO ERRELIJIONIA ?



**E**GUNKO egunian hanitch jenteren ezpañetan ar-  
dura arraerabilirik den komersa, hau da : *Akabi*  
*da errelijionia*; ezta gehiago errelijione behar-  
*rik*. Dugun ikhous zer oundatz dien elhe hoiek.

Lehenik : *akabi othe da errelijionia*? Badutu he-  
meretzu ehun ourthe lehen aldikoz elhe horren  
erraitiak. Jesus Jinko semiaren khorpitzza doi-doia  
ehortzirik zen eta haren etsaiak joan ziren *Pilatusi*  
erraitera : « Jaona ohartu gutuzu jente inganazale  
horrek bizi zelarik erran diala : *Hirour egunen bu-*  
*rian arraphiztuko niz*. Manha ezazu arren, horren  
thoumba soldadoez begiraturik izan dadin, beldurrez  
eta besteñiz haren dizipuliak jin ditian khorpitzaren  
hartzera, gero erraiteko populiari : Hiletarik arra-  
phiztu da ».

Pilatusek soldado hoberenatarik igorri zutian saldo  
bat Jesusen khorpitzaren begiratzera, hiriko kache-  
taren markak ezari thoumba harrian, eta, gisa hor-  
rez, Jesusen arraphiztiari eman zeitzon borogantcha  
edo jakilegoa hanitch segurragoak deusere egin  
ezpalu beno. Etzen hullanik ere akabi errelijionia  
lehen iseiu hortan.

Lehen mentian, kargulant handi batek izkiribat-  
zen zeron *Trajan* emperadore persekutazaliari :  
« Dembora llaburretan barnen eztuzu khiristien  
herecharik ere baratuko eta eztukezu ihour ere ohart  
alegiako Jinko khurutzefikatiaz. »

Hirour mente berantago, *Julien apostatak* ez zian  
dudarik errelijionaren galeraztiz. Katolikoer beren  
elizak khenturik, eliza haietan egin crazten zutian  
Jinko faltsien adoratzeko paganoen artian usatu zere-

moniak. Armadako banderatarik khenerazi zutian khurutchiaren potreta eta Jesu-Kristen izena. Eskola khristiak oro zerra-erazi zutian; legia legen gañen egin zian errelijionaren herecharik ihounere ez uzteko, eta houna noun gerla batetan ehorik den eta haren hiltziarekin, hiltzen da, ez errelijionia, bena bai persekuzionia.

Hamaseigerren mentian, *Luther* fraide apostata, *higanaoten* aita, ari zen trufaz. Aita Saindari buruz, erranez : « Ene bizi demboran izan nukek hire uzurritia, izanen nuk hire photeriaren desegilia, ene hil ondoan. » Aspaldian *Luther* hilik da, errelijionia aldiz bethi bizirik dago.

Hamazortzigerren mentian, *Voltairek* izkiribatzen zeion adiskide bati : « Etsiturik nuk entzutez bethi arraerraiten hamabi gizon aski izan direla errelijione katolikoaren establitzeko; nahi diat nik erakoutsu gizon bat bera aski dela errelijione horren desegiteko. »

*Voltaire* hil da, haren dotrina phozoatiek Frantzian erreboluzione demboran erakoutsu die zer den jentia errelijionerik gabe, eta populia, eskerniaturik, greiithurik mouda berriko eta basa abereen uduriko bizitze mouldiaz, gogo hounez arra-utzuli da errelijioniarren urhatsetara.

Diala hoge eta bost ourthe *Jules Ferry* eskola Jinkogabekoen ezarlia, ikhousiz legia, errelijionerik gabe haorren eraikitia manhatzen ziana, igaranerazi ziala, trufaz bezala ari zen *Pariseko St-Sulpice* deithu elizari buruz : « Orano hoge ourthe eta eztateke haboro elizarik. »

Eta *Jules Ferry* hil da, errelijionia aldiz bethi aitzina doa.

Orai iseiak behinere beno borthitzago eta azkar-rago egiten dutie errelijionia galerazi beharrez. Lege bat egin die Elizari lephotik sokaren ezarteko; lege hortan badutie eskiak oro, indarkaz errelijioniarren

beren oustez hilerazteko ; lege horrek emaiten dere eskia, *nahi badie*, 1906<sup>eka</sup> abentu 11<sup>ik</sup> harat, nouiz nahi elizen zerratzeko, aphezen beren etchetarik kanpo ezarteko, seminarioen, aphezakuputegien zerratzeko ; *nahi badie*, ahal dutukie aphezak amandala edo presountegiala kondenatzen, heben harat, elizetan edo bordetan ere meza emaiten balinbadie ; hainbeste jandarma, hainbeste soldado, hainbeste kargulant badutie, beren chediaren burutzeko.

Ausartatuko othe dira, hain aitzina joaitera ? Geroak erakatsiko du. Bena geroak erranen du ere ondoko menter, oraiko persekutazaliak hil direla ; errelijionia aldiz chuti baratuko da.

Eztu arhinki ez aoherretan erran elhe hau, goure Salbazaliak, diala hemeretzu ehun ourthe : « Ifernuko photerek eztie deusere eginen ahalko ene Elizaren kountre ! »

Hemeretzu menteren jakilegoa badu elhe horrek, eta memento hountan Frantziako katoliko egiazkoek elhe hortan eta jakilegoa hortan edireiten die aski indar Errepublikak gorriaren armaden ororen garhaitzeko.

Errelijionia akabi dela ? Bena Frantzian holakorik agi baledi ere — eta lephoa berme ezar niro eztela agituko, — Frantziako mugetan zerratzen othe da mundu guzia ?

Anglaterran, zounbat nahi azkar eta photeretsu diren hanko protestantak errelijione bat bera da be-thi emendatuz doana, hora da errelijione katolikoa. Azken mentian *bi milio* protestantek utzi die beren errelijionia, gouriaren besarkatzeko. Alamañan, *Bismarck* handiak, Autricha eta Frantzia garhaiturik, paregabeko photere batez dunturik ametstu zian behar zutiala bere emperadoriaren peko populiak oroder errelijionaren sinhestiala erakharri. Haren legiaren indarrak, haren armaden indarrak ez ziren baliatu aphezkupe eta aphez katolikoen eta haien peko

fededunen kontzertzien khordokaerazteko. Hamar ourthez tchesterazi zeien gosia, praubezia, presountegia, destereia ; Bizmarck bera azkenekoz zeditu zen eta persekuzione horrek errelijione katolikoa araberritu eta zinez azkartu du Alamanian.

Nort-Amerikan edo Etats-Unis-etan, noun jentia nihounere beno hobekiago eskolaturik beita, katolikoan nounbria emendatzez doa. Diala ehun ourthe ez ziren nazione guzian berrogei mila fededun baizik, horrek egiten beitu katoliko bat ehun jenterentako. Orai badira hamar miliou katoliko, erran nahi beita zortzi jenteentako katoliko bat. Diala ehun ourthe ez zen han aphezkupe *bat* baizik hogeia aphezekin ; orai badira laueta hogeita hirour aphezkupe eta zazpi mila aphez.

*Misione katolikoetan* ere handi da pagano edo beste zouin nahi errelijioneko pharteliant konbertitzen direnen nounbria. Aldiz Españan, Italian, Autrichan, nazione katoliko Frantziatz beste direnetan, populia zinez etchekitzen da bethi bere errelijionari. Arren gezurra erraiten die eta zinez troumpatzen dira berak, *errelijionia akabi dela* erraiten dienak.

Bigerrenik : *Ez othe da gehiago errelijione beharrik?* Diala ehun bat ourthe, Napoleon handiak haitatu behar beitzian Frantziako eskola handi eta tchikipien ororen buru zatekian ministro bat, jinerazi zian bere palazioala M. de Fontanes, deputatien khamberako presidentia, hari nahi beitzeion eman kargu hori eta erran zeion : « Nahi dit Frantziako eskolierretarik egin ditzadatzun egiazko gizon elibat. Eta uduritzen ahal zaizia ere, izaten ahal dela egiazko gizonik Jinkoatan sinhesterik ezpalinbadu? Zertan gañen berma litake bere enjogidura gaistoen eta khechien heñian etchekitzeko? Jinko gabeko gizona ikhousi dit lanian 1793 ourthetik hounat. Holako gizona eztizie gobernatzun, kanouen aitzinian ezar eta tiroz ehaiten dizie. Holako gizonetarik aski badit!

Guk behar dugun bezalako gizonak geroan ukheiteko, ezariko dit Jinkoa enekilan. »

Arrazou zian Napoleonek eta horren ber gogoko dira hanitch izkiribaño edo jakitant aiphatienetarik.

Batek dio: « Ezpalitz errelijionerik elizateke deus hounik, batere ez sortzia baizik. » Beste batek: « Zoazte errelijione gabeko populu baten bilha; edireiten baduzie, segur izan ziteie aberiak uduri dategiala. » (*Hume*).

Beste batek: « Khen ezazie errelijionia populu baten bihotzetik, zer ezariko duzie ordari? Errelijionerik gabe ezta herririk, ezta zozietaterik. » (*Portalis*). « Goga dezagula, dio beste batek, jente chehia, emutsa, aberats elibati buruz, batek ez bestek eztielarik haboro Jinkoatan sinhesterik.

Eztenaz gañen Jinkorik, ez errelijionerik, ez zelurik, eztenaz geroztik lurra, urhia eta plazerra baizik, emadak lur, urhe eta plazer, dio emustak aberatsari. — Hire phartia eginik duk, ihardesten du aberatsak. — Gutiegi diat, dio emutsak. — Lehen aski zeikan zertako ez orai, erran liru aberatsak. — Lehenago, ihardetsiren deio emutsak, lehenago, bazian Jinko bat zelian, banian bihotzian sinhestia eta egurukitzen nian, lur hountarik landan, zelia. Errelijioniak, hire bardiñ ezarten nundian elizan, eta hiri manhatzen zeikan eni sokhorri egitia eta ene maithatzia hire aurhide bat bezala. Ordian othoitze egiten nian, Jinkoari pharkamentu galthatzen, pazentziarekin sufritzen, ohartzez Jesu-Kristen errana: Dohatsu praubiak! Bena orai erran deitadazie Ebanjelioa gezurra dela, eztela Elizarik, eztela Jinkorik, eztela pharadusurik. Geroztik, zertako lanian ariko niz? Zertako besteren nahia eginen dut? Ezpalinbadut deusare eguruki behar bizitze hounen ondotik, nahi diat ene hountarzun phartia orai berian!... » (*Pierre Leroux*.)

Jakilegoa hoietarik ageri da eziala jentia bere



buria chuchen gobernatzen ahal, ezdutiala bere enjogidurak heñian etchekitzen ahal, ezpalinbadu errelijionerik. Izaten ahal da jakitant handi, paregabeko, hanitch gaizatan gañen, bena beharrena eskaz duke ezpalinbadu errelijionerik.

*Errelijionerik gabe*, mothiko gaztia noula egon litake azkar berthutian, noula begira litake lohikerian ithotzetik ? Noula persouna gaztiak begira liro bere bihotza chahu, bere belarra ahalkiaren edertarzunaz bethi argiturik, bere konduta bethi ounest eta erraitekorik batere gabe ? Noula aberatsa jin litake emutsian bere aorhide baten ikhoustera, bere dihariaz egin ahal litzakian usantcha gaisto eta galgarrietarik begiratzeraz ? Noula langilia egon leite bekhaisteriari edo ordikeriari eta haien ondoaje izigarrier eman gabe ? Noula familia batetan bakiak irainliro, noula senhar emazte beren arteko eginbide sakratiak bethelitzokie noula haorrer haien garrik hartze dien errespetia edo obedientzia eman ahal liroie ?


Sobera da ageri, Frantzian, zer ekhartzen dian errelijione gabiak.

Errelijionia tchipitzenago eta jenteen eta familien konduta tzarrago doa. Haorretan hasirik, ourthe buru batetik bestialako krimennounbria zinez emendatzen arida, eta tribunaletako aitzindari handienetarik batek orano berriki agertu den liburu batetan, aithortzen zian, emendio lotsagarri hori jiten dela errelijionerik gabe haorren eskoletan eraikitzetik.


Oraiko gobernamentiak khien baleza errelijionia Frantziatik, azkenik eginik izan den lege hastialgarriaren bidez, erraiten ahal da, hogei ourthe gabe ezdatekiala Frantziarik, zeren Frantzesek beren artian alkharrri gerla egin beiliroie, eta zouin nahi populu aizok, gerla batez bertan bereturik beiluke Frantzia. Ezpadugu gerlarik ukhen orano berriki Alamaniareki, hori egin du berheziki arraz ou hounek : Alamaniako emperadaniak ikhousi du oraiko legek

Frantziari egiten derela haren armadek egin leizkon damiak beno hanitch handiagoak eta aphur bat orano egurukitzez lana ehiago dukiala.

Jinkoak begira gitzala eta begira dezala Frantzia erreljioniaren galtzetik.



« BOTZ EMAITIA KOUNTZENTZIAKO  
EGINBIDE BAT DA ! »



**A**GIA hori aipha dadila herriko plazan, Deputa-  
tien Khanberan, eta berheziki Elizako phere-  
dikagian, zer khechu-boulltak berhala, zer  
oihu-marraskak ez dutu jaouz erasten : *Bakhotchak  
botza emaiten dizu nahi dianari, ountsa Jiten zaion  
bezala ; kargulanten eginbidia duzu botzaren emaitia  
phakatzen dutian gobernamentiaren althe ; politikak  
ezdizu deus ikhoustekorik kountzentziareki.....* Eta  
jente eli batek nahi lukeie bortchaz sinhetserazi bot-  
zaren emaitia ezdela fantesia, buru-kolpe, gaiza  
ezdeus bat baizik. Ata ihourat ere ezdaiteke, zuzen  
eta eginbide lehen-lehenen lan hortan, zouintan  
kountzentziaren zola haou : *ountsaren eta gaizkiaren  
berhezgoua*, zola ezin igituzkoua, erabilirik beita botz  
herroka baten, botzen haborouaren gainen bermat-  
turik diren lege elibatez ; ez, diot, ez daiteke beha-  
turik izan jente fede houn, kountreko direnez, aitzin-  
etik hitzartu gabe printzipio ezin hounkizko zoun-  
baiten gainen.

Llabur eta chuchen izan nahi gira eta egiaren ai-  
tzinian ez gibeltu, fountsik ez dian libertate bati  
erhoki etchekara direnak amiñi bat khecha erazirik  
ere.

Jinkouak gizounari burutzeko eman derona, eta

burutze hartara heltzekoua, lehen zuzen eta lehen eginbidia da; eta gaizen, burutze hari buruz erabilitiak egiten du ountsaren eta gaizkiaren arrazoua. Horra justiziaren zola eta kountzentziaren erregla.

Burutzeko dena eta hartara heltzekouak ez direnaz geroz bazterrialat eizten ahal, damu izigarri eta hersdura ezin ematzuko bat gabe, burutze houra eta hartara heltzekouak, ezin hounkizkouak dira; zuzen hen kountre, ezda zuzenik.

Gaiza bizirik ezdian eta izpiritiaren, eta horietarik bataren eta bestiaren intresen artian, eta halaber, zozietate laguntzalen eta intres hen artian, bada gehiengoua eta menpekotartzun bat zouintan arrazoukuntiak behar beitu bethi aitzinian ebili, bihotzkuntiak oundotik.

Beste gainti batetarik, gobernamentu batek ez dezake inhourat ere har Eliza bere eskupeko langile publik bat bezala; ezdu herresta biltzen ahal bere aitziniala zozietate katolikoua, haren urhats khiristien jujatzeko eta gaizki edireiteko. Elizaren gainetik ezda photererik; eta khiristi, Eliza katholikouari egiazki dagouena, bortchaturik da, katholik izatekotz, gobernamentu zibilaren naousiagogoua hari arnegatzera.

Printzipio horik osoki hartu nahi ezlutukianareki ez lizate hurrunago jouaiterik; gaizek beste izenik har lirokeie; ezin elhesta, ezin algar entzun lizate.

Berhala igaran gitian goure arrankura — *Kountzentzia<sub>z</sub> botzaren emaitiala.*

1<sup>ik</sup> *Botz emaitia kountzentzia<sub>z</sub>ko eginbide handi bat da.*

2<sup>ik</sup> *Nouri behar da botza eman?*

3<sup>ik</sup> *Zer egin botzaren ountsa emaiteko?*

1<sup>o</sup> Botzaren emaitia **Kountzentzi**azko eginbide handi bat da.

Bethi danik, botz emaitia kountzentzi azko eginbide bat izan da. Zeren eta, ez balitz ere gaiza ageri direnen erabilitia baizik, ez beitira bat ere ezdeusak, behar die izan ountsa erabilirik.

Bena, goure egunetan, kountzentzia da orano hobeki sarthurik dena. Ezi gaizak, bortchatuki, houn edo gaichto dira, hetan arren kountzentziak badu ikhousteko, lehen-lehen zuzen eta eginbidiareki hek dienaren arabera. Ata, zozietatiaren gora-beherak eta jente bakhotcharenak ber legiaren pian dira. Zozietatiak gehienik bilhatu behar diana beita jente bakhotcharen burutzen laguntzia, populiaren gobernatiak behar du ountsalat ari. Bekhatu handi egiten die, damu gaitza eretchekiten dielakotz, gaiza publika eskietara emanik ukhen oundouan, gizounak burutzeko dian izigarriaz ezachol, burutzekotz, gizounak bortchatuki begiratu behar dutian legiak zankhapestan chehekatzen dutienek.

Bena botzaren emaitia balinbada, hanitchen artian haitu baten erakastia, eta haitatu denari zozietatiaren gañeko gehiengoua mouchi baten emaitia; botzaz, bakhotcha abiatzen da gobernatzera, erran nahi beita, guti edo hanitch hullantzen dela haren biziaren nahi dien bezala gidatzeko photeria ukhenen dien gizoun saldouari; botzaz, bakhotcha ari da bere buria, herria, departamentia, erresouma tinkatuko dien legen egiten.

Ene botza ukhenen dien gizounek ezari lege hourak, ene eta besterentako, agian justo, houn, abantallous dirate; agian ere injusto, gaichto, eni nihaouri eta bester ogen egile, burutu behar duguniala laguntu behar eta hartarik baztertzen bagutie. Eta zerere izanen beitira lege hourak, noulako ere bei-

tate hourak begiraeraziren dutian gobernamentia, ene botzkako billetian diratian izenetarik jinen dira. Botzemaile bakhotcharen hatza, arren, ountsa ageri da erresouma gobernatzan dien gizounetan eta ageri ago herria ebil erazten dietetan.

Eta hatz hora ezagun da orano, botz gutiagouareki (minorité) baratu diren etan ere, galthazalia (candidat), botzka batetan, ezpeita haiñ lerdan, haiñ ekhintu, haiñ lotsarik gabeko 20 botzer igaranik, hala noula 2.000 az naousiturik.

Botzemaile batek arren, bere botzaz, bere haour eta herritarren zorthetik mouchi bat bere eskietan du. Badaki edo jakin behar du, botzaren emaitia, bizikolan phezuenetarik dela, zeren oundouramen handi eta hedatuenak beitu. Aita familiadun, bere haourrak gaizki altchatzen dutian batek, damu gaitz eta ezin chuchentuzkoua egiten du bere haourrer lehenik, eta gero, haour hek, beren aldian, ountsatik baratuko eta gaizkialat ekharriko dutien oroer. Bena botzemaile hora, bere familia halache galdu oundouan eta ungunekouak nahasi, heltzen bada, *bere botzaz*, herriko haour oroer eskola edo jakitate barreiat, jinkorik gabeko baten eman eraztera, *Frantzia-ko haour haborouen erlijionerik gabe altchaeraztera, zer gaizkia ezduke egin?* eta ourthe hanitchez, eta, haourreria saldo handi batetan?

Ezda arren aouzi kountzentziari tinkkiago eta azkarkiago ethekara denik, goure denboretan berheziki, nouiz eta ez beitura ari haitatzen bakhochki, gizoun, intres galkorrer hobekichiago edo lazukichiago jarraikiren direnen, bena orano, politikan, Erlijionia joko edo begiratuko, fediazen argia hilen edo phitzturik ethekiko dien gizounen, fedia beita zozietateko kara hounaren uthurri bakhotch, erran nahi beita, lureko gaizen ountsa jouan erazlia, bai eta goure esparantcha azkarren zola bakhotch, erran nahi

beita, beste biziko iroustarzunaren gouri ukhen erazlia.

Egiazki, behar da izan erhoki utsuturik urgulliaz, ouhoure eta dihariaren errabiaz, gizoun, zinkouak kountzentzien argitzeko eta chuchen ebilerazteko bakhotch ezari dutianen aitzinian holako elherik erraiteko : « aphezek ezdie behar *hounki ere*, botzkako « kestione edo zerik ! »

## 2<sup>o</sup> Nouri behar da botza eman ?

Botza eman beharda :

1<sup>ik</sup> *Gai (capable) diren gizouner.*

2<sup>ik</sup> *Kountzentziaduner.*

3<sup>ik</sup> *Ezda egon behar botzik eman gabe.*

1<sup>ik</sup> Botzaren emaitia haitatze bat denaz geroz, botzak ezdu eman behar nouri nahi, utsian. Haitatiak izan behar du gai gomendatzen derozunaren egiteko. Eta hartakotz, ukhen behar dutu behar diren ezagutziak.

Ata, bai zozietaten bizia, bai jente bakhotcharena harat-hounatkatzen diren printzipio ezin hounkizkouen arabera, ez geroko bizitzian, ez zozietate khiristian sinhesterik ezdienak, ezdira gai, ezdakienaz geroz zouñ porti buruz zozietatiaren ountziak jouan behar dian, ezdirelakotz erabiliren botchier buruz edo galzteko bidiak gainti baizik. Arren, botzaren emaitia Jinkorik gabekouer, fran-mazouer, edo, Erljione katholikoa lasterkatzen dien gizouner, bekhatu mortal, zozietatiaren ertzeko krimo batda.

Orano ere, ezdira gai, nahi lukeien kargiaren eza gutte berhezia ezdienak. Farmazien eta Bedezi, Jaki tate faltaz, eriak urhentzen dutienak, handizki ogen dun dira eta ezdie bakhochki bekhatu egiten Justiziaren kountre, diharu gaizki bilduz, bester egin

damia ere beren gain die. Halaber, zuk haitatu jakitaterik gabeko harek, egun batez, botza gaizki ematen balinbadu oundouamen tcharra dian zerbait-etan, nouren gain date, ezbada zoure, hain erhoki esku eman derozunaren?

Ez, hullanikere, ez dira heineko, ezdira gai Senatutur, Deputatu, Kountsellu jeneraleko, Mera hourak oro, zouiñek elhesta batetan edo pherediku baten oundotik, Erlijioneko gaizak noula nahi mourdoukatzzen (erreglatzen) beitutie, gaiza hain pheziak hain hurrun hedatzen direnak, chuchen erabilteko hain neke eta gaitz direnak, behin ere ez ikhasi, ez ikhertu ezdutionak; justiziako gaizak ere berek mouzten dutionak, behar diren argiak, etzekotz jakintsuner, batere galthatu gabe.

Eta halako gizoun ustutcher botzaren emailek bekhatu handi egiten die, populiaren intres, Erlijioneko eta hountarzunetakouak halako eskietan ezartez. Malerouski, *zitoien* botzemailian jakitate eskaz eta zirikeria den bezain beste, urgullu gizen eta errabiatu bada *zitoien* lege egilian. Behar lizatianaren gabezia ezda bakhochki bastizaren hegatzian, foudamen etan da ere. Ez; Errepublikaren gobernamentu, perfetzionia uduri zaikun hounek ezdutu emanen bere oundouramen ageriki hounak geroko populietan baizik, nouiz eta, Erlijione khiristiaren argiak hobeki sarthurik beitate izpiritietan, nouiz eta. Arraerosliaren graziek mardoturen beitie zikhoizkeria eta jaidura okherrak etchekicheren. Ordartio, jakin-gabiak, temak, intres ezdeus elibatek itho nahi die egia eta justizia begiratzen orotara hedatzetik.

« Bena, die erranen, botzen haboroua (majorité) « gaintibat duzu, legia eginik, legia duzu. » Elhe okher, arrazou ezdeusa!

Zeren eta botzen haborouak ezdu beste baliorik hen emailen gogo eta jujamentiena baizik. Deus ezdakian baten botzak, eta gutiz gehienak halako dira, berar-

taz, ezdu batere baliorik, ezdu founts hounik, *zéro* da. Zer balio du, erradazut, chorrotch baten elhe eta botzak izarren edo philosophiaren egindura eta barnatarzunaren gainen? Souiñak hersa eta bazterrialat eizten dira. Botzen haboroua, halako zerbait etarik eginik, gezur gobernamentuzko bat lizate, erhokeria handitu eta orophotoretsu bat!

2<sup>ik</sup> Botza eman behar da gizoun kountzentziaduentako, erran nahi beita, thenoria jin denian, eginbidari bazterra, gibela emanen ezdieneu.

Izpiritiaren ahala ezda aski orotako:

Boronthate houna, arimako indarra dira berheziki egiazko gizoun, guk behar bezalakouen egiliak. Jakitatia eder edireiten die, bena soldado houna egiten dian lotsa gabe eta ernetarzuna khorouaturik da.

Bihotz mouchirik ezdu, ihourat ere ezda houn zozietatiarentako deputatu, kountseller, mera houra, zouiñ, mintzatu behar zelarik justiziaren zuzenen althe, botzen haboroua hen kountre jarteko menian, ezbeita bichtalat agertzen edo bere chokhotik ez igitzen bere intres zerbait gatik, zounbait eki etsaitzeko lotsa gatik. Bere eginbidia bazterrialat eizten du, bere kountzentzia saltzen du, zouiñek ere botzen goitigia (urne électorale) eizten beitu esku balheiu, noulako nahikouen artian. Halako jaouner bere kounfiantcharen berriz ere emailiak gaizki handi bat eigiten du. Gizoun ilhainentako botzaren emaitia, krima batez ogendun jartia da, eta ber denboran, *haitatiek egin dien gaizkiaren bere bizkarrialat hartzia*.

Eta zoure Deputatu geia ezpada haitaturik, damurik ez izanik ere, zoure bekhatia ohikoua duzu. Su emailiak theiutzen du bere kountzentzia, ez burduñazko tresnak (*bombe*), zapartatziareki, bazterrak erhaousten dutian thenore hartan, bena mitchari su emaite hartan berian, mitcha erra dadin, ala buriala heltu gabe suia hil dadin.



Ageri da botzen ukheitia pribilejio bat dela, bena pribilejio gizouna ouhourez betheko ezdiana, bere eginbidia ountsa betheko dianian baizik.

3<sup>ik</sup> Hartakotz, botzak behar du bethi ountsa eman; zeren botzik eman gabe baratziak laguntzen du, usian, galthazale gaichto, Erljioniaren etsai baten haitaturik izatia. Botz bat haboro edo gutiago, die erranen, zer da?

Bena botz emaile saldo batek zuk bezala erraiten balinbadie, eta erraiteko zuzena zuk balinbaduzu, hek ere badizie, ez ditezu haboro izan botzkarik; botz algargana bildiek titzie egiten botzen haborouak (majorités) eta gaizek ezdizie utzi behar lazuki ountsaren etsaien phekisala erortera. Beste alde, erran dugun bezala, eskazia (minorité) houn batek hotzten dizu galthazaliaren urgullia. Eta arren, zer nahi agiturik, botzik batere ez emaitia, bere beraren nagikeria eta oundouramen pheziez, bethi gaizki da.

### Zer egin botzaren ountsa emaiteko ?

Bi gaiza : Ezagut ahalik ountsa botz galthazalen jinak, hen ahal eta sendimentiak ; jar nahi azkarrian botzaren emaiteko hountzentziaz eta ountsarentako bakhochki.

Khirsti baten lehen eginbidia beita Jinkouari Jinkouarenaren emaitia, zitoien baten lehen eginbidia da ere Jinkouari Jinkouarenaren emaiten, erran nahi beita, bizitze katolikaren eramaiten oro laguntuko dutien gizounen haitatzia. Hartakotz ere, botz emaile batek, haitia egin beno lehen, bere beithan igaran behar du : Eni botzaren galthazale hori, haitaturik balinbada, *noula ariko da Errelijioniaren eretzian* ; bere botza emanen dia aita amak beren haourren khirstiki altchatzetik baratzen dutien legen

althe, aphezak beren eginbiden bethatzera citzi nahi ezdutien legen althe, Erlijioniari jarraikiteko libertatia tinkatzen dien legen althe, gobernamentia, haren gaiñetik den Erlijioniaren naousi ezari gei dien legen althe? Eta houna noula ezagut, chuchen, botz galthazale houn eta gaichtouak.

Botz galthazale (candidat) houna berhezten da gaichtotik :

1<sup>ik</sup> *Bere biritzeko gisatik.* — Bere khiristi eginbider jarraikia balinbada.

Bere fediarri etchekara egoiteko odolik ezdiana, haren beharrik, beretako, ezagutzen ezdiana, noula date hari etchekara besteren biziaren eta zozietatiarentako? Zoure alhaba ezkontzerazten duzunian, arrunkura zira, araouz, zer heñ eta kara ko etchiala douen, bena ikhertzen duzu ere, ichilka, zoure suhi geia zertsu den izpirituz eta bihotzez. Hala egin ezlirokiana ezlizate, ez zuhur, ez zuhurraren khantuko ere. Ata botzaz, haour baten geroua beno hanitch haboro aidian ezarten da, familia osoua, hiria, erre-souma.

2<sup>ik</sup> *Berak aitzinetik eman botz etarik eta hitzemaiten dutianetarik.* — Zuhaiña ezagun da uztetarik; eta noula zuhaiñen suertiak ezbeitira alderatzen enpheltiaz baizik, halaber, jadanik kountzentzia okherra erakatsi dien gizounak ohikouak izanzen dira gero ere. Politikan ountsalat utzultzekotz, bere bizitzian ere behar da chuchenialat igaran. Ata haou, bekhan agitzen da; adinak azkartzen dutu gogo eta enjogidurak, bena ez berririk emaiten.

3<sup>ik</sup> *Hari etchekiten diren etarik.* — Algargana bilzaliak algar uduri dira. Erran ezadak noureki habilan eta erranen deiat nour hizan.

Botz galthazale hounak bethi lagunturik eta ungu-

raturik dira jente gisakouez, Erlijioniaren eta bakiaren adichkidez.

4<sup>ik</sup> *Haren althe diren gasetetarik.* — Badira gainti orotan izkiribu hounak eta gaichtouak. Gaichtouak, erran nahi beita, Jinkorik gabeko eta Erlijioniaren etsai direnak, zozietateko bakiaren nahasliak, gezurraz eta kalomniaz ari, ahal bezaiñ beste, botz galthazale gaichtouentako.

Laour seiñhale horieki, botzemaile gogo eta nahi chuchenekouak ezagut ehi duke botz galthazalen balioua. Bena hati, ezbaledi hel ahal, berartaz, aski ezagutzetara, behar du, ordian, biziko gora-beherentako bezala, gizoun zuhur bati argi galthatu.

Zitioen baten bigerren eginbidia da botzaren emaitia printzipioz, eta ez, jenten eta intres tchar eli baten gatik. Heben arren, behar da azkartu bere boronthatia eta botza eman, zounbait orduz, bere atsin eta intresaren kaltetan ere, bena bethi bere kountzentziaren arabera.

Ata, egia utzirik, ororen aitzinetik bere gaintiarentako aritzia, kountzentziari ostikataz eta jenten tako aritzia da. Justiziak igaran behar du adichkidegoua guzien aitzinetik. Jententako aritzia da, nouiz eta, huguntkeriaz edo herraz ororen houna bazterriallat eizten beita, eta galthazale bati gibela emanik, bere botza houn ezden bati emaiten beita. Halaber, beri herri edo buriaren hounaren aitzinetik, ororen houna bilhatu behar da. Botzaren emaitia, galthazale gaichto, herriari edo zihaouri zerbait abantalla hitzemaiten dianarentako, eginbidiari huts egitia lukezu, zoure botzaren saltzia, zoure buriaren saltzia, *jinkouari khountu eman beharko zaizun itchouskeria baten egitia.*

Arren, oro algarri etchekara dira: Frantzia galzera balinbadoua, fede eta morala khiristiari emanik diren ostikatetarik, katholikek ezdielakotz haboro


beren eginbidia egiten; ez, ezdira jagoiti khiristi houn hiri eta herrietako Elizan ebilzale hourak, hek adoratzen diena erreko diententako, utsuki, botza emaiten dienak! Gisa horrez ez dirokeie egin beren salbamentia, ezbeitira « justo ».

Gaizen lehen-lehen buria, lehen zuzen eta lehen eginbidia, horra bizia ora erabili behar dian printzipio edo zaiña.

« Quærite primum regnum Dei et justitiam ejus  
« et cœtera adjicientur vobis. »



## ISTORIA ETA ERASI



**A**LEGIAKO ISTORIABAT. — Urgulliak eta bekhaisteriak elheoundatzgabeko hanitch erranerazten, erhokeria eta okherreria hanitch eginerazten dutie. Egunko egunian berheziki, oro bardin legiak ezarten gutialako estakurian, ametsetako lukhainka hanitchez ase egiten die jente chehe saldo batek. *Egalité* delako legian den gezur handi hori iretsirik, uduri zaie, behar diela zozietatia pialaz goratu, ororen hountarizona batetara ezari eta ororen artian zathikatu, gero zozietate berri batetan, batere bururik edo aitzindaririk gabe (oro bardin direnez gañian) bizitze moule berri bat ororek eraman.

Holako zozokeriak gogoan dutiener eta burutzen laguntu nahi lutukiener nahi deret khountatu istoria bat: Behin batez, iratziak, khaparrak, elhorriak, gardiak, errebollta bouiltabatez hasi ziren oihuz: « Fuera fuera haltzak, bagoak, lecharrak, haritchak! Gu nombre handiagoan girelarik, haien itzalian bethi ithorik bezala gira; fuera, fuera, orok dugun ukhen

bardin aire, argi eta itzal ! Ordian ordian ageriko eia ezkirenez oro bardin izanen gisa oroz ! »

Oihu horri behatu ziren egur egiliak, eta, aiskorak harturik, egotchi zutien zuhaiñkentiak oro, haiez egur egiteko, eta lurra osoki pikarrai agitu zen, berberak iratze, khapar, elhorri eta gardiak airian gora zoztalarik. Zer boztarioa, zer urgullia hoietan, ikhousiz, azkenian, libertate osoa baziela, haltz, bago, lechar eta haritchak bezainbeste eta gehiago zirela.

Erregegoa horrek ez zian luzaz iraiñ. Ourthe bat, biga igaran orduko, zuhañen erroctarik zuhañ berri elibat abiatu eta altchatu ziren, emeki emeki handitu eta lehenekoak bezañ gora heltu. Itzal egin zien orano ere iratzer, khaparrer, elhorriç eta gardier, hoik bethi aitzinetik bezañ tchipi eta ez deus baratu beitziren.

Oro bardin girela edo izan behar dugula erraiten dienek, zer othe dioie alegiako istoria horrez ?

Burut baleze ere zozialistek ororen bardin ezarteko dien ametsa, arimako eta khorpitzeko dohañez ezik ere, berere lureko hountarzunetz, elizatekia bertan ageri aitzineko ber desbardingoa ?

Egun bardin aberats ezar balite zuhurra eta erhoa, pherestia eta aoherra, sosen doian igorlia eta sabelkorra, ourthe bat gabe handi lizateke haien arteko desbardingoa.

\*  
\*\*

*Zer egin ?* — Hiri batelako *garan*, hamabost karroucha herrokaturik ziren, uda hountan, egun batez, bidajant zounbait ukhenen zielako esperantchan. Hogei eta hamar bat langile han ziren, khantian, bidajanten igaragian. Houna noun erretor bat heltzen da, gara alde barnetik, bere phousken karga handiska bat eskutik chilinchao. Langile batek erraiten deio lagun bati : « Ikhouston duka ihize beltz hori. Hamar soseko bat gu bezalako bati irabazerazi nahi gabez,

berak eramaiten ditik bere phouskak. Fuera aphezak ! » Eta langilek ororek ihardesten die zinez : « Fuera aphezak ! »

Apheza, ichil ichila, aitzinachiago badoa, eta langile begitharte houneko bere gainti berhez zen bati joaiten zaio eta galthatzen deio hounanbeste batentako karga eraman dizon houlako lekhiala. Gaiza hori ikhouston dieia bai, gorago aiphatu langilek batek erraiten dere laguner : « Sogizie, sogizie, noula bere phouskak besteri kharreiaerazten dutian. Den bezalako aoherra ! » Eta langilek ororek haren ondotik zinez arra-erran zien : « Den bezalako aoherra ! » Hortarik ageri da eztakiela nountik loth aphezen hutsian edireiteko, hanitch jentek, egun, eta hutsaren itzal baten gatik ere, jaosz litakiela aphezaren gaña haren chehekatzeko ahal balie.





MAIATZA edo EPHAILA

Eg luzatzen dira oren eta laordenez




- Ⓕ a. l., 4<sup>n</sup>, arratseko, 10 oren<sup>n</sup>.  
 Ⓖ a. b., 11<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.  
 Ⓓ l. l., 20<sup>n</sup>, gaiko 1<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.  
 Ⓔ a. o., 27<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.



- Ⓕ a. l., 2<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 29<sup>n</sup>.  
 Ⓖ a. b., 10<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>.  
 Ⓓ l. l., 18<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.  
 Ⓔ a. o., 25<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 36<sup>m</sup>.



1 Astizken.	J. Filipe et Jak. Ap.	1 Neskanegun.	s. Kler.
2 Ostegun.	s. Atanasi.	2 <b>Igante.</b> 2.	s. <i>Potein.</i>
3 Ostirale.	Da <sup>a</sup> Khurutze.	3 Astelehen.	s <sup>a</sup> Klotilda.
4 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Monika.	4 Asteharte.	s. Frantzes K.
5 <b>Igante.</b> 5.	s. <i>Pio V.</i>	5 Astizken.	s. Bonifazi.
6 Astelehen.	J. Joh. Eb. ( <i>Errog.</i> )	6 Ostegun.	s. Norbert.
7 Asteharte.	s. Stanizlaz.	7 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
8 Astizken.	J. Migel. agert.	8 Neskanegun.	s. Medart.
9 Ostegun.	SALBATORE	9 <b>Igante.</b> 3.	s <sup>a</sup> <i>Pelajia.</i>
10 Ostirale.	s. Antoneñ.	10 Astelehen.	s <sup>a</sup> Margarita.
11 Neskanegun.	s. Orienz.	11 Asteharte.	J. BARNABE, <i>ap.</i>
12 <b>Igante.</b>	s. <i>Nere eta Akil.</i>	12 Astizken.	s. Johane Fag.
13 Astelehen.	s. Jenio.	13 Ostegun.	s. Antoni, Pad.
14 Asteharte.	Johane Sala d.	14 Ostirale.	s. Basila.
15 Astizken.	s. Eutrope.	15 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Jermena.
16 Ostegun.	s. Johane Nep.	16 <b>Igante.</b> 4.	s. <i>Frantzes R.</i>
17 Ostirale.	s. Paskal.	17 Astelehen.	s. Avit.
18 Neskanegun.	s. Venanzio.	18 Asteharte.	s <sup>a</sup> Marina.
19 <b>Igante.</b>	PHENTEKOSTE.	19 Astizken.	s. Jervasi eta Prot.
20 Astelehen.	s. Bernardeñ.	20 Ostegun.	s <sup>a</sup> Juliena Falk.
21 Asteharte.	s. Petiri Zel.	21 Ostirale.	s. Louis Gonz.
22 Astiz. <i>IVTh. B.</i>	s <sup>a</sup> Kiteria.	22 Neskanegun.	s. Pauleñ.
23 Ostegun.	s. Ubalde.	23 <b>Igante.</b> 5.	s. <i>Eusebio.</i>
24 Ostir. <i>IVTh. B.</i>	A. B. Lagunzalia.	24 Astelehen.	J. JOHANE BA.
25 Nesk. <i>IVTh. B.</i>	s. Gregori VII.	25 Asteharte.	s. Eurosia.
26 <b>Igante.</b> 1.	TRINITATE.	26 Astizken.	s. Johane eta Paule.
27 Astelehen.	s <sup>a</sup> M. Mad. P.	27 Ostegun.	s. Prosper.
28 Asteharte.	s. Agosti.	28 Ostirale.	s. Irene.
29 Astizken.	s. Garzia.	29 Neskanegun.	J. PETIRI P.
30 Ostegun.	BESTABERRI.	30 <b>Igante.</b> 6	J. Phaoleren orh.
31 Ostirale.	s <sup>a</sup> Anjela.		



## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☿ *a. l.*, 2<sup>n</sup>, arrastiriko 20<sup>r</sup>. eta 49<sup>m</sup>.  
 Ⓜ *a. b.*, 10<sup>n</sup>, arrastiriko 30<sup>r</sup>. eta 26<sup>m</sup>.  
 ☽ *l. l.*, 18<sup>n</sup>, arrastiriko 0<sup>r</sup> 1<sup>a</sup> eta 21<sup>m</sup>.  
 ☾ *a. o.*, 24<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.  
 ☿ *a. l.*, 31<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 35<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- Ⓜ *a. b.*, 8<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 46<sup>m</sup>.  
 ☽ *l. l.*, 16<sup>n</sup>, arratsoko 9<sup>or</sup> eta 15<sup>m</sup>.  
 ☾ *a. o.*, 23<sup>n</sup>, gaiherdi eta 24<sup>min</sup>.  
 ☿ *a. l.*, 30<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.



1 Astelehen.	s. Tierri.	1 Ostegun.	J. Petiri katietan.
2 Asteharte.	A. B. BIZITAZ.	2 Ostirale.	s. Alfonso, Lig.
3 Astizken.	s. Gillen.	3 Neskanegun.	J. Ezteber. edir.
4 Ostegun.	s. Leon II.	4 <b>Igante.</b> 11.	s. <i>Dominiche.</i>
5 Ostirale.	s. Zirile.	5 Astelehen.	A. B. M. Elbur.
6 Neskanegun.	s. Trankile.	6 Asteharte.	J. K. Transfig.
7 <b>Igante.</b> 7.	Jes. Odol. Pr.	7 Astizken.	s. Kajetan.
8 Astelehen.	sa Beronika.	8 Ostegun.	s. Ziriako.
9 Asteharte.	sa Elisabet, p.	9 Ostirale.	s. Jermeñ.
10 Astizken.	Zazpi anaie m.	10 Neskanegun.	s. Laorenz, m.
11 Ostegun.	s. Pio.	11 <b>Igante.</b> 12.	s. <i>Tiburze.</i>
12 Ostirale.	J. Johane Galh.	12 Astelehen.	sa Klara.
13 Neskanegun.	s. Anaklet.	13 Asteharte.	sa Radegonda.
14 <b>Igante.</b> 8.	s. <i>Bonaventura.</i>	14 Astizken.	s. Eusebi.
15 Astelehen.	s. Johane Maj.	15 Ostegun.	A. D. M. MARIA Zel.
16 Asteharte.	A. D. M. KARM.	16 Ostirale.	s. Rok.
17 Astizken.	s. Aletsis.	17 Neskanegun.	sa Emilia.
18 Ostegun.	s. Kamille.	18 <b>Igante.</b> 13.	s. <i>Joakim.</i>
19 Ostirale.	s. Bizente Paolo.	19 Astelehen.	sa Filomena.
20 Neskanegun.	s. Filibert.	20 Asteharte.	s. Bernat.
21 <b>Igante.</b> 9.	sa <i>Pratseda.</i>	21 Astizken.	s. Julien Lesk.
22 Astelehen.	sa <i>M. Maidalena</i>	22 Ostegun.	s. Ipolita.
23 Asteharte.	s. Apolinari.	23 Ostirale.	s. Filipe Ben.
24 Astizken.	s. Henrik.	24 Neskanegun.	J. BARTOL., ap.
25 Ostegun.	J. JAKOBE, ap.	25 <b>Igante.</b> 14.	A. B. <i>Bihotz</i> s.
26 Ostirale.	sa Aña.	26 Astelehen.	s. Louis, erreg.
27 Neskanegun.	s. Galatori.	27 Asteharte.	s. Jusef. Kal.
28 <b>Igante.</b> 10.	s. Nazari eta Zelze	28 Astizken.	s. Agosti.
29 Astelehen.	sa Marta.	29 Ostegun.	J. Joh. Lephom.
30 Asteharte.	s. Abdon.	30 Ostirale.	sa Rosa, Lima.
31 Astizken.	s. <i>Inazio Loyola.</i>	31 Neskanegun.	s. Remoun N.





BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ⊙ a. b., 7<sup>n</sup>, arratsko 9<sup>or</sup> eta 13<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 14<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.
- ⊕ a. o., 21<sup>n</sup>, arratsko 9<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- ⊕ a. l., 28<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 46<sup>m</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.




- ⊙ a. b., 6<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 30<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 12<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 11<sup>m</sup>.
- ⊕ a. o., 20<sup>n</sup>, goizankq 9<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.
- ⊕ a. l., 28<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta min 1<sup>n</sup>.



- 1 **Igante.** 15. s. *Bizente, ap. m.*
- 2 Astelehen. s. Eztebe, erreg.
- 3 Asteharte. s. Lizier.
- 4 Astizken. s<sup>a</sup> Franz. Ch.
- 5 Ostegun. s. Laorenz J.
- 6 Ostirale. s. Onesifore.
- 7 Neskanegun. s. Zebero.
- 8 **Igante.** 16. A. B. SORTZIA.
- 9 Astelehen. s. Omer.
- 10 Asteharte. s. Nikolas.
- 11 Astizken. s. Hiazinte.
- 12 Ostegun. s. Gi.
- 13 Ostirale. s<sup>a</sup> Eujenia.
- 14 Neskanegun. D<sup>na</sup> *Khurutze.*
- 15 **Igante.** 17. A. B. *Izen Saint.*
- 16 Astelehen. s. Ziprieñ.
- 17 Asteharte. s. Franz. Zaor.
- 18 Astiz. *IV Th. B.* s. Jusef Kup.
- 19 Ostegun. s. Janvier.
- 20 Ostir. *IV Th. B.* s. Eustache.
- 21 Nesk. *IV Th. B.* J. MATHIU, Eb.
- 22 **Igante.** 18. A. B. DOLOR.
- 23 Astelehen. s<sup>a</sup> Rekla.
- 24 Asteharte. A. B. *Librazalia.*
- 25 Astizken. s. Austinde.
- 26 Ostegun. s. Tomas Vil.
- 27 Ostirale. s. Kosme eta Dam.
- 28 Neskanegun. s. Fauste.
- 29 **Igante.** 19. J. MIGEL, ark.
- 30 Astelehen. s. Jeronimo.

- 1 Asteharte. s. Remi.
- 2 Astizker. *Ainguru Begir.*
- 3 Ostegun. s. Exupero.
- 4 Ostirale. s. Frantzes, As.
- 5 Neskanegun. s. Venzeslaz.
- 6 **Igante.** 20. ARRUSARIOA.
- 7 Astelehen. s. Fide.
- 8 Asteharte. s<sup>a</sup> Birjita.
- 9 Astizken. s. Denis.
- 10 Ostegun. s. Frantzes B.
- 11 Ostirale. s<sup>a</sup> Sabina.
- 12 Neskanegun. s<sup>a</sup> Domnina.
- 13 **Igante.** 21. *A. B. Amalarz.*
- 14 Astelehen. s. Kalista.
- 15 Asteharte. s. Teresa.
- 16 Astizken. s. Bertran.
- 17 Ostegun. s. Edvije.
- 18 Ostirale. J. LUK, Ebanj.
- 19 Neskanegun. s. *Grat*, Olor.
- 20 **Igante.** 22. *A. B. Gerbitarx*
- 21 Astelehen. s. Ursula.
- 22 Asteharte. s. Petiri, Alk.
- 23 Astizken. s. Leotade.
- 24 Ostegun. s. *Rafael*. ark.
- 25 Ostirale. s. Krespin.
- 26 Neskanegun. s. Evarista.
- 27 **Igante.** 23. *A. B. Patron.*
- 28 Astelehen. J. SIMOUN, ap.
- 29 Asteharte. s<sup>a</sup> Eusebia.
- 30 Astizken. s. Kazieñ.
- 31 Ostegun. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⊙ *a.b.*, 5<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 48<sup>m</sup>.
- Ⓜ *l.l.*, 12<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.
- Ⓣ *a.o.*, 10<sup>n</sup>, gaiherdi eta 13<sup>m</sup>.
- Ⓢ *a.l.*, 27<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eterditan.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>



- ⊙ *a.b.*, 4<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 31<sup>m</sup>.
- Ⓜ *l.l.*, 11<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 25<sup>m</sup>.
- Ⓣ *a.o.*, 17<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 4<sup>m</sup>.
- Ⓢ *a.l.*, 28<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.



1	Ostirale.	DONISANTORE.
2	Neskanegun.	Purg. Arimak.
3	<b>Igante.</b> 24	<i>Errelika s<sup>k</sup>.</i>
4	Astelehen.	s. Charles Bor.
5	Asteharte.	s. Zakaria.
6	Astizken.	s. Leonart.
7	Ostegun.	s. Florent.
8	Ostirale.	s. Martirak.
9	Neskanegun.	s. Teodoro.
10	<b>Igante.</b> 25	ELIZEN SAKR.
11	Astelehen.	J. MARTINE.
12	Asteharte.	s. Stanizlaz K.
13	Astizken.	s. Didazi.
14	Ostegun.	s. Josafat.
15	Ostirale.	s <sup>a</sup> Jertruda.
16	Neskanegun.	s. Edmon.
17	<b>Igante.</b> 26	s. <i>Gregori T.</i>
18	Astelehen.	s. Odon.
19	Asteharte.	s <sup>a</sup> Elisabet Hgr.
20	Astizken.	s. Felis, Valesi.
21	Ostegun.	<i>A. B. Eskentzia</i>
22	Ostirale.	s <sup>a</sup> Zezila.
23	Neskanegun.	s. Klement.
24	<b>Igante.</b> 27	s. <i>Johane Kb.</i>
25	Astelehen.	s <sup>a</sup> Katalina.
26	Asteharte.	s. Petiri, Al.
27	Astizken.	s. Virjile.
28	Ostegun.	s. Maurino.
29	Ostirale.	s. Saturnino.
30	Neskanegun.	J. ANDREU, Ap.

1	<b>Igante.</b>	ABENTUKO 1 <sup>a</sup>
2	Astelehen.	s. Bibiana.
3	Asteharte.	s. <i>Frantzex Xab.</i>
4	Astizken.	s <sup>a</sup> Barbara.
5	Ostegun.	s. Sabas.
6	Ostirale.	s. Nikolas.
7	Neskanegun.	s. Ambrosi.
8	<b>Ig. Abent.</b> 2 <sup>a</sup>	A. B. KONZEP.
9	Astelehen.	s. Jeronze.
10	Asteharte.	s <sup>a</sup> Eulalia.
11	Astizken.	s. Daniel
12	Ostegun.	s. Melkiade
13	Ostirale.	s <sup>a</sup> Luzia.
14	Neskanegun.	s. Arzene.
15	<b>Igante.</b>	<i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i>
16	Astelehen.	s. Euzebio.
17	Asteharte.	s. Lazaro.
18	Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Gazieñ.
19	Ostegun.	s. Urbeñ.
20	Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s <sup>a</sup> Julia.
21	Nesk. <i>IV Th. B.</i>	J. TOMAS, Ap.
22	<b>Igante.</b>	<i>Abentuko 4<sup>a</sup></i>
23	Astelehen.	s. Onorat.
24	Asteharte.	s <sup>a</sup> Delphina.
25	Astizken.	EGUBERRI.
26	Ostegun.	J. EZTEBE, m.
27	Ostirale.	J. JOHANE, Eb.
28	Neskanegun.	Haor Inoz.
29	<b>Igante.</b>	s. <i>Tomas, Kant.</i>
30	Astelehen.	s. Manzuet.
31	Asteharte.	s. Silbestre.

OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an</sup> .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an</sup> .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 <sup>an</sup> .
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an</sup> .


MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6<sup>a</sup>. — ATHAR-  
 RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-  
 menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE  
 GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste  
 ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,  
 Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>a</sup>. — GARRUZEN :  
**m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>a</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian.  
 — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>a</sup> *eta*  
 aphiril. 15<sup>a</sup>. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondo-  
 ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :  
**m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk<sup>a</sup>, *eta* abentu 8<sup>a</sup>. —  
 ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen  
 asteh<sup>a</sup>. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>a</sup> ;  
*eta* buruila 8<sup>a</sup>, hirouf eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,  
**f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>a</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —  
 SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>a</sup> *eta* urrie-  
 tako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





# Edirengia



I. 1906 ourthia .....	97
II. Adio erreligionia? .....	102
III. Botz emaitia kountzenziako eginbide bat da....	108
IV. Istoria eta erasi.....	118

